




180. zenbakia

· ABENDUA 2018 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan

KOORDINATZAILEAK

Lur Gil eta Itziar Perez

TIRADA

1.600 aleak

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZIA

argizaria eta ezitia bereizteko prozesua

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira abenduaren 21ean bidalia

Olerkia



Neguko gaba

“
*Ez dakit zer
den sekula bukatzen ez dena:
negua edo gauda.
Gauaren emari beltza
edo neguaren hartze zuria.
Negua egunsentirik gabeko
gau luze eta bakarra da.
Gauda begietako ikatza
ilargiaren begirada izoztuan.*

”

Jon Barberena,

, 2018ko Lauaxeta olerki sariketaren irabazlea



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Urte berri on!

2019. urtean heldu zaigu. Asko eman du 2018ak, eta uste baino azkarrago igaro zaigu urtea. Hamaika kontu adierazi dizkizuegu orrialde hauetan, urtero egiten ditugun hamaika Pulunpe aldizkarietan.

Gainera, udatik aurrera, beste komunikabide baten bidez helarazi dizuegu informazioa, komunikabide digital baten bidez, amezti.eus.

Baina ez da norabide bakarreko informazioa izan. Ez dugu guk

soilik informazioa helarazi, zuek komunikatu duzue, izan ere zuen herrietan gertatzen denaz informatu eta eskualdeko bizilagunekin elkarbanatu duzue. Eta hori da komunikabide baten helburua, denok izan gaitzen informatzaile, komunikatzaile, eta denok erabili ditzagun eskura ditugun komunikabideak. Eta hori guztiori, euskaraz.

Neguan sartu gara, urte aldaketa dator, eta honekin batera beste

berri pozgarri bat. Urtarrilaren 13an irratia konektatuko dugu. Zozketa mundiala zuzenean egingen dugu, baina ez da egun bakarreko konexioa izanen. Aurrerantzean, irratia martxan izanen dugu berriz ere, programazio berrituarekin eta indar berrieekin, gure alderdiko kontuak uhin bidez jaso dezazuen.

Ongi bukatu urtea eta hobeki hasi, urte zaharrari agurra eta berriari egurra!



**LARRAINTZARKO
BENTA
ZENTRO ZIBIKOA**

**Iuntxak
bazkariak
afariak**

...

ENKARGUZ

**deitu:
948 30 92 57**



Erremontearen

urrezko garai hura

XX. mendearen hasieran jaio zen erremontea euskal pilotaren aldaera gisa, aldaerarik berriena. Izan ere, Juan Moyak asmatu zuen erremontearen tresna. Iruñeko Sarasate pasealekuko “Juego-Nuevo” frontoian aritzen zen Juan Moya beste pilotari batzuekin batera laxoan jokatzeko. Tolosara joan omen zen 1904ko udan, eta saski egile bati marrazki bat erakutsi, tresna berri bat egin zezan. Urte bereko udazkenean, Sarasateko pilotalekuan aterazuen lehen aldiz tresna berri hori. Harriturik eta ikusminez hartu zuten ikusle, enpresari eta pilotariak, baina jokatzeko utzi zioten. Lehenengo pilotakadarekin huts egin zuen Moyak, eta tresnarekiko ikusmina jaitsi egin zen. Baina Partida erditik aurrera hobeki jokatzeko hasi zen, eta partida ikusgarria jokatu zuen tresna berri horrekin, kontrarioei aise irabaziz. Erremontea jaio zen.

Ordutik, azkar egin zuen gora erremontek, jarraitzaile ugari sortu zituen, eta nola ez, dirua mugitzen hasi zen. 1909an Iruñeko San Agustin kaleko “Euskal-Jai” pilotalekua inauguratu zen, Serapio Esparza arkitektoaren maisua. Iruñean, Hernanin (Galarreta), Madrilen (Jai-Alai eta Recoletos) eta beste pilotalekuren batean, ia egunero izaten ziren partidak, ikusleaz lepo eta jokoa kantxan zein harmailetan, diru kopuru handiko jokoa.

• ULTZAMA ALDEKO JOKALARI PROFESIONALAK

Ultzama aldeko jokalariek profesionalak Nafarroan eta Gipuzkoan izan zuten erremontek arrakastarik handiena, eta bi lurralde hauetako jokalariek profesional ugari sortu zituzten, baina nafarrak ziren nagusi.

• IRAIZOTZ AITA-SEMEAK, ALKOZKO ERREMONTISTAK

Iraizotzaita-semeak, Alkozko erremontistak Ultzaman, Alkotzek bi pilotari eman zituzten, Iraizoz aita-semeak. Antonio Iraizoz Irure, “Iraizoz I”, 1911an sortu zen, eta debuta 1935ean egin zuen Iruñeko “Euskal-Jai” pilotalekuan, 24 urte zituela.

Erremontearen historiara igaro da Iraizoz I.a, profesionaletan urte gehien eman dituen pilotaria baita. 1975eko urtarrilaren 9an jokatu zuen bere azken partida profesionala. Beraz, 40 urtez izan zen profesional, 64 urte zituela hartu zuen erretiroa. Garai horretan, oso maila fisiko ona omen zuen, eta erremontean hasten ziren gazteei laguntza asko eskaintzen omen zien.

Ez zuen garaipen ikaragarriarik izan, gainera, debuta eta bere azken partidua, biak galdu zituen. Baina 1948an “Torneo inter-frontones” txapelketan garaile izan zen Sandalio Sainzekin batera.


Partida askotan bikote berezia izan zuen, bere seme José Antonio Iraizoz, “Iraizoz II”, nahiz eta 31 urteko aldea egon bataren eta bestearen artean. 17 urterekin egin zuen debuta Iraizoz gazteak, 1960an. Pilotari ona omen ze, errematatatzile ona eta “artista”, baina indarra eta maila fisikoa faltan omen zituen. 22 urtez izan zen profesional, eta duela gutxi hil egin zen, 2012an, Elizondoko zahar-etxean.

Burua babesteko kaskoa erabiltzen lehenengotarikoa izan zen. Izan ere, profesionaletan 12 urte jokatuak zituenean, bere laugarren pilotakada jaso zuen, eta arriskuaz oharturik, aurrelariak lehenbizik

eta atzelariak gero, kaskoa janzten hasi ziren. Horren ospetsu izan zen arren, beste hainbat erremontista profesional eman zituzten eskualdeak: Juan Manuel Mariñelarena, Olague, Eltzaburu, Azpiroz...

• JOSE LUIS RECALDE, LANZKO ERREMONTISTA

Eskualdeak emaniko erremontista onenen artean, Jose Luis Recalde Iraizotz nabarmendu behar dugu. Lantzen jaioa 1952ko ekainaren 17an, maila oneko eta gaitasun fisiko handiko erremontista izan zen. Ez zen ordea erremontean jokatzeko hasi, esku-pilotan baizik.



Ezker-eskuin Iraizoz II, Iraizoz I, Arbizu I, eta Arbizu II ▲

▼ **Lantzen duen bordan elkartu gara Jose Luis Recalderekin**



Ez zuen ibilbide erraza izan, eta asko borrokatu behar izan zuen esku-pilotan lehenik eta erremontean gero entrenatzeko. Lizarran ikasi zuen eta bertako pilota eskolan aritu zen lehendabiziko urteetan. Lizarra ordezkatzuz, herrien arteko txapelketa irabazi zuen gainera.

1973an Espainiako afizionatu mailako pilota txapelketa irabazi zuen, eta laster etorri zitzaizkion Galarreta pilotalekuko enpresariak erremontera pasatzeko eskaintza eginez. Galarretan entrenatzen hasi zen, maila handiko erremontistekin batera. Entrenatzen hasi eta egun gutxitara jarri zioten kontratua mahai gainean.

Recalde gogoratzen du nola enpresariak azkar konturatu ziren Lanzko pilotariak zituen dohaineekin. Orduko erremontista profesionalak ere harrituta geratu omen ziren, erremontea sekula probatu gabe izanik, oso azkar moldatu baitzen tresna berrira, eta maila handia erakutsi zuen hasieratik.

Azkar debutatu zuen, 1973an bertan, eta 1991ean hartu zuen erretiroa, 19 urteko ibilbide profesionalaren ostean. Profesionala zela ere, zailtasun ugari izan zituen. Lehenik Lanztik Hernanira entrenatzera joateak suposatzen zuen zailtasuna. Herritik errepide nagusira oinez ateratzen zen, kirol poltsa eskuetan

eramanda. Auto-stop egiten zuen gero Oronoz-Mugairira joateko, eta bertatik, inguruko erremontistekin autobusez joaten zen Hernanira. Gogoratzen duenez, ez zen zaila auto-stop eginez leku batetik bestera mugitzea, are gutxiago kirolari itxura izanda, gidariak berehala hartzen zuten.

Bestetik, pilotakada gogorra jaso zuen eskuin besoan, eta kubitoa hautsi zuen. Ebakuntzan zauria infektatu egin zitzaion, eta beso osoan kaltzifikazioak izan zituen. Enpresako kirol-medikuak erremontea utzi beharko zuela esan zion, baina erreabilitazioa egiten hasi zen eta gutxika besoaren mugikortasuna berreskuratu zuen. “Ez nuen berreskuratu lehenagoko

latigoa, baina profesionaletan jarraitzea lortu nuen”, gogoratzen du Recalde.

Erremontearen historian mugarri garrantzitsua jarri zuen Recalde. Iruñeko San Agustin kaleko “Euskal-Jai” zaharretik, Uharteko “Euskal-Jai Berri” pilotalekura izandako aldaketa irrikaz bizi izan zuen erremontearen munduak.

Recalde San Agustin kaleko “Euskal-Jai” pilotalekuko azken partida jokatu zuen, 1977ko abenduaren 14n. Mateorekin batera Urrutia eta Lekunberrirenaurka jokatu zuen, eta partidak ez zuen amaierarik izan. Mateok pilotakada gogorra jaso zuen aurpegian, eta erizaindegira eraman behar izan zuten. Hurrengo egunean Uharteko “Euskal-Jai Berri” pilotalekuaren inaugurazioa izan zen. Harmailak jendez lepo, ordura arteko pilotalekurik ederrena... honela gogoratzen du Recalde, erremontearen urrezko garaia zen, diru ugari mugitzen zuen erremontek, eta diru horrekin, oso azkar ordaindu zuten pilotaleku berria.

Orain, ordea, pilotalekua itxita dago, eta Hernaniko Galarreta da irekita geratzen den bakarra. Artekarri lanetan aritu izan da Recalde erretiratu zenez geroztik. Erremontearen beherakada onartzen du, baina itxaropentsu ageri da kirolak izandako aldaketekin, bereziki frontoi motzera pasatzeak eta diru-laguntzek izan dezaketen bultzakadarekin.



▲ **Recalde eta Mateo,
Euskal-Jai zaharren azken partida aurretik**



Pintxo lehiaketa, Basaburuko ostatuetan

Pintxo lehiaketa egin dute Basaburuko ostatuetan bi asteburuz. Oroketako Ostata, Igoako Ostata, Aizarozko Ostata, Apeztegierriko Taberna eta Udabeko Benta izan dira saria irabazteko lehiatu direnak. 2'5 euroren truke, edaria barne, dastatu ahal izan dira pintxoak abenduaren 8an, 9an, 15ean eta 16an.



▲ Oroketako ostatuko pintxo

Ekimena Basaburuko Gizarte Politiken Batzordeak antolatu du, eta txapelketaren irizpideen artean honako hauek ipini dituzte: produktuak Nafarroakoak, sasoikoak eta transgenikorik gabe ekoiztutakoak izatea, alegia. Erronka erraza taberna haientzat!

Nork egin du Basaburuko jakirik goxoen? Dastatzearekin ez du alderik, baina hemen ikusten ahal da beren itxura paregabea, goikaldeko argazkietan.

Igoako Ostata izan da irabazlea. Basaburuko pintxorik goxoen bildotxa, patata eta sagarraz eginikoa da.


Urte hasieran itxi zuten Igoako Ostata, eta duela hilabete gutxi berabiatu dute, lana ongi egiten ari direlaren seinalea da saria.



Jauntsarasko Apeztegierriko pintxo ▲



Igoako ostatuko pintxo ▲



Txangoan ikasitakoa erakusketa batean adierazi dute Larraintzarko ikasleek

Larraintzarko ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleek urrian egin zuten Leurtzako urtegietatik Eltzaburura bitarteko ibilbidea. Goiz osoa eman zuten ibiltzen, etabitatean, inguruko baso bizitzaren eta kulturaren inguruan ikasi egin zuten. Basoko animaliak, zuhaitzak, hostoak, zizak eta beste hainbat konturen inguruan aritu ziren solasean, azkenean gosetuta Eltzaburura iritsi arte.

Bertan zain ziren herriko hainbat biztanle, eta bertako kontuak azaldu zizkieten, besteak beste Eltzaburu izenaren jatorria. Bi teoria plazaratu zituzten, bata 'eltso' + 'buru' hitzen elkarketaren ondorioz sortua, eta bestea 'eliza' + 'buru' elkarketaren ondorioz. Ikasleen galderak ere erantzun zituzten, eta gutxi batzuk izan ziren.

Sustraiak guraso elkarteak sustatutako ekintza izan zen, eta hirugarren aldia da halako txango bat egiten dela. Joan zen urtean Belatetik Lantzerara joan ziren ikasleak.

Oraingoan, ibilbidea egiteaz gain, erakusketa batean erakutsi nahi izan dute ikasitako guztia. Lan handia egin ondoren, astebetez Larraintzarko zentro zibikoan erakustea lortu zuten. Bertan argazkiak, marrazkiak, eskulanak, informazio testuak eta bestelakoak jarri zituzten, eta iradokizunak egiteko kutxa bat.

Baina kontua ez zen erakusketa hutsean geratu. Aste osoan zehar, maila guztietako

ikasleak igaro ziren erakusketa ikustera, eta txangoa egin zuten ikasleek gainontzekoei azaldu zieten erakusketa eta txangoan ikasitakoa. Beraz, zirkulua itxi egin zuten: ikusi, ikasi eta irakatsi, besteek ere ikas dezaten.

Erakusketa zentro zibikotik kendu dute jada, baina amezti.eus webgunean bideo bidez ikus dezakezue.

▼ *ikasleak, eskuz eginiko inguruaren maketa ikusten*



▲ *Eginiko ibilbidearen maketa*



Basaburua eta Imotz, ETB 2ko Juego de cartas saioan, adiskidetasun eredua

ETB 2ko *Juego de cartas* saioan agertu dira Etxalekuko Ostaturia, Berueteko Txasenerko Borda eta Aizarozko Ostaturia, Aldazko Martitxonea sagardotegiarekin batera. Programako aurkezleak, Javi Sierrak, estrategia gutxien izandako saioa izan dela adierazi du, eta adiskidetasun eredua izateagatik eskerrak eman dizkio lehiakideei. Maritxu Erbiti, Etxalekuko Ostaturiko jabea; Angel Álvarez, Berueteko Txasenerko Bordako jabea; Ana Irigoyen, Aizarozko Ostaturiko jabea; eta Inaxio Begiristain, Aldazko Martitxonea sagardotegiko jabea izan ziren lehiakide zintzo horiek.

Nahiz eta irabazteko helburuarekin ez zihoala esan, Ángel Álvarez, Berueteko Txasenerko Borda sagardotegian egindako lanarengatik izan da garailea, eta 2.000 euroko saria eraman du. Baina behin eta berriro errepikatu zuen programan beren

lana erakusteko aukera izateagatik denak izan direla irabazleak. Álvarez Asturiasen jaio zen, gaztetan Hernanira joan zen, bertan maitemindu eta 3 hilabetetan ikasi zuen euskaraz hitz egiten. Ondoren, bere bigarren maitasunak, sagardotegi lanak, Berueteko Txasenerko Borda martxan jartzera bultzatu zion. Kupelak, itxura, txuleta erretzeko parrila eta sukaldea goraiatu dute bere lehiakideek.

Bigarren postua Maritxu Erbitik daraman Etxalekuko Ostaturiak irabazi du. Harriz eta egurrez egindako jantoki ederra, eta bikain antolatua duen sukaldea nabarmendu dute. Bertan, gainera, oiloak eta poniak ditu Erbitik, umeek asko atsegin dituztelako. Han egiten duen bazkari tradizionalak, baratzeak, eta, bereziki, mamiak, puntu ugari lortzeko aukera eman dizkio.

Hirugarrena, Aizarozko Ostaturia izan da,

Ana Irigoyenek kudeatzen duena. Txikia izan arren, sukaldea zoragarri prestatua duela esan dute gainontzekoek, eta umeentzako duen txokoa ere asko erakarri ditu. Irigoyenek aniztasun funtzionala duten pertsonendako zentru batean lan egin zuen 15 urtez, baina aldaketa sakona behar zuelako Ostaturia hartzea erabaki zuen. Bizitzan hartutako erabakirik onena dela azpimarratu du telebista saioan.

Laugarrena, baina besteok aitortu dutenez, ez galtzailea, Aldazko Inaxio Begiristain izan da. Programan ipini diren puntuaziorik hoberenak jarri dituela nabarmendu du Javi Sierra aurkezleak, bere adiskidetasunarengatik eskerrak emanez, "Estrategia gutxien erabili den saioa izan da gaurkoa, adiskidetasuna izugarria izan da, horregatik, bihotz-bihotzez mila esker lau lehiakideei", hitz horiekin agurra eman dizkie guztiei.



Olentzero eta Maridomingiren bisita

Urtero bezala, eskualdeko mendietatik herrietara jaitsi dira Olentzero eta Maridomingi. Eguberrietako zita garrantzitsua izaten da gure ibarretako herri askotan, eta baita ikastetxeetan ere.

Bisitarik goiztiarrena Aritzura izan da. Herriko biztanleak ez ziren bikotearen zain zeuden bakarrak, Iruñeko Arrosadia eta Azpilagaña auzoetatik etorritako haur eta guraso ugari bildu dira, urteroko legez, Aritzun. Yoar gazte elkarteak eta auzo

elkarteek antolatuta,

eguberriak

iritxi aurretik

ikazkina eta

Maridomingi

ikusteko aukera

izan dute, eta

gutunak



eskura eman. Horrenbestez, lanak aurretik eginda, eguberri egunean oparien zain egotea beste lanik ez dute haurrek, oporraldia ederki gozatuz.

Hurrengo bisita ikastetxeetara izan da, Larraintzar eta Jauntsaratsa joan dira ikazkina eta Maridomingi. Aldizkaria inprentara bidali genuenean, oraindik ez zen idazten ari garena gertatu, baina ziur gaude pozez eta ilusioz hartu zutela ikasleek bikotearen bisita.

Eta eguberri egunean, eskualdeko herri ugaritan ospatzen dute Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Lantzen, Olaguen, Anotzibarren, Aroztegin, Latasan, Jauntsaratsen, Eltzaburun, Alkotzen, Iraizotzen, Gorrontzen... Jarraian dituzuen argazkiak joan zen urtekoak dira, eta aurtengoak amezti.eus webgunean jarriko ditugu, zuon guztion kolaborazioarekin, zuon herrietako argazkiak nahi baititugu!

Urte aldaketaren inguruan, beste hainbat ekitaldi izanen ditugu, eta Lizaso izanen dute erdigunea batik bat. Bertan izanen baita urtezahar eguneko Silbestre Deuna lasterketa eta errege eguneko kabalkada.



▲ Iraizotzeko Olentzero



▲ Alkozko Olentzero

▲ Larraintzarren 2014. urtean



Zaharrak berri

Arraras

Beste herriren bateko adiskide batekin topatzen bazara eta zer berri den bere herrian galdetzen badiozu, erantzuna ia seguru honako hau izanen dela:

-Zaharrak berri!

Bai, gehienetan hala izaten da, baina beste batzuetan kontua da zure adiskideari, hola, bat-batean, ez zaiola deus gogoratzen, besterik ez, berri franko izaten baita.

Lehengo egun batean Arrarasko bi adiskideekin egon nintzen, Iruñean batekin eta Arraratsen bestearekin, eta nire galdera berberari erantzun bera:

-Zaharrak berri!

Jakina, gero hizketan hasi eta poliki-poliki konturatu gara Arraratsen berri asko izan dela azken urte honetan.

Esate baterako:

Txelaieko borda iruindar baten eskuetan zegoen eta orain bizpahiru hilabete, bat-batean hil zen. Asteburuetan etortzen zena zen eta herriko jendearekin harreman gutxi zuena.

Orain saltzera atera dute borda hau aldameneko soro eder batekin.

Ea erosleen bat agertzen den. Gure alderdikoren batek erosiko balu eta hobe. Bizitzeko ez da toki txarra.

Marako borda handi eta ederra saldu zen orain denbora puska bat. Eta zaharberritu eta landetxea jarri zuten. Ez du denbora aunitz kontu honek. Dakigunez, lanean ederki ari dira.

Hurrengo batean berri gehiago kontatuko dugu.



Marako borda. Bi palmondo aurrean dituela. Ez da horrelakorik gure alderdian ikusten. Palmondorik ez eta hau bezain borda eder?

Arraras

Joan den astean Arrarasko berri ekarri genuen. Dena dela, ez genituen berri guziak eman eta gaurkoan horretan ahaleginduko gara.

Bi familia herritik joan eta berri bat etorri.

Mendizabaleko borda saldu da. Murgi aldean dago borda eder hau, mendiko txoko batean, soro zelai batzuen erdian. Ultzamar batzuk erosi dute eta laster bizitzera etortzekotan da familia osoa, senar-emazteak eta bi ume.

Ez da berri txarra familia berri bat etortzea, ez horixe! Eta gehiago orain urte gutxi etorri ziren bi familiek utzi herria eta Aizarotza joan direnean. Bat *Iriarteko* etxetxoan bizi zen eta bestea *Etxaundiko* baratzean jarri zuten Yurta batean.

Etxe zahar-berritze lanak

Kastenea

Bi etxeetan zahar berritze lanak egin dituzte. Alde batetik Kastenea

konpontzen ari dira.

Arraratsen etxe zahar franko bazela baina orain bat gutxiago izanen da. Teilatu berria eman eta kanpotik ederki jartzen ari dira. Etxe galanta. Handia dela, esan nahi dugu. Eta ederra ere bai, jakina. Iñaki Rekondo omen da konpontzen ari dena.

Herrikoetxea

Herrikoetxea ere konpondu dute. Kontzejuarena den etxe hau, aspaldi zegoen hutsik. Eta utzirik, esanen nuke. Teilatua itxusurez betea... oso gaizki.

Orain teilatu berria eman diote eta ederki gelditu da.

Ostalaririk ez ote dugu topatuko? Hor nonbait, lan egin nahi duen norbait balitz, bizia aterako luke. Toki txarragoetan bizia ateratzen duenik bada. Lana aurrera ateratzeko, hori da giltza etxe honek behar lukeena.

Nolanahi gisa, zutik iraunaraztea ez da gutxi.

Orain 20 egun Arraratsa joan eta ez zela berririk esan ziguten. Zaharrak berri, hori izan zen erantzuna. Esporta bat berri izan denean, ez dela berririk?

Arrarastar guziei, besarkada bat Ameztitik!



Arrarasko herri xarmanta, Otsola aldeko bidetik ateratako fotografia.

Muskitz

Imotz-Atetz argi sarea.

Pulunpe honen berri eman genuen aspaldixkoan. Bai, Iriberritik nola botatzen ari ziren argi haria, goitentsioan.

Nahi baino luzeago jo dute lanek, baina azkenik Sanmartinetan bukatu zituzten den-denak.

Argia seguru izanen dugu Imotzen, Irurtzun aldetik ez bada, Atetz aldetik izanen baitugu.

Bermuskitz

Aipatu ere aipatu behar da, uda pasa eta, berriz ekin diotela Bermuskitz ekinbideari.

Aipagarria eta are gehiago, originala ere badela ekinbide hau deritzogu.

Zertan mamitzen den kontu hau?

Ba, igandero, eguerdi aurrean, Biltokian biltzen da herriko jendea, elkartzeko astean behin bederen, ihardukitzeko, eta elkarrekin une goxo bat pasatzeko.

Vermout bat hartzeko, hitz batez.

Eta igandero pintxoak izaten dira. Horretarako, zerbitzu hau eskaini ahal izateko, etxekal egiten da lana.

On dagizuela muskiztarrok!

Familia berri bat

Ezkurraren etxea esaten diogunera, aspalditik hertsirik zegoenera, bikote gazte bate etorri berri da. Ongi etorri!



Bermuskitz ▲

Oskotz

Palacio de Aralar.

Bai, Leire Iribarrenek eta Jose Ignacio Goldaratzek izen hori eman diote orain berriki, astebete edo, inauguratu duten landetxe berriari.

Orain hiru-lau urte erosi zuten Apezetxea. Eta ondoren, zaharberritze eta egokitze lanei ekin eta oraintsu bukatu dute dena.

Izugarri dotore gelditu da etxe hau eta ez da harritzekoa, lehen ere ezin ederragoa baitzen.

Etxea nolakoa den-eta ikusi nahi duenak, casaruralpalaciodearalar.com helbidera sartzea aski du.

Izan dezatela arrakasta. Ez diegu besterik opa!



Eraikinaren alde bat, balkoi ederrarekin ▲



▲ Teresa Etulain Orrio

Gelbentzu

Teresa Etulain Orrio hil zaigu, Bentako etxekoandre zaharra. Aspaldi samar Agoizko Xahartegian zegoen eta hil honen 24an zendu zen, 101 urtetan.

Jose Irure Oianbururen alarguna.

Burutainen jaio eta 4 urtetan Gelbentzura etorri zen familia osoa, Barbenera eta handik ezkontzaz Bentara joana.

Gure alderdiko zaharrena ote zen, baina, bada oraindik zaharragoa denik ere.

Osasuna enkomendatzeko ahaide guziei, batez ere Bentakoei.



iritzia



Garazi Arrula Ruiz

Berria egunkarian

Arma tiro klika

2018ko abenduaren 14an

Stendhalen ustez, kontzertuaren erdian pistola tiroak bezalaxe eragiten du literaturan politika agertzeak. Gogoeta horrekin hasi zuen Belen Gopeguik literaturari eta politikari buruzko hitzaldi bat, eta gero Txalapartan argitaratu, Eider Rodriguezen hitzaurrearekin. Tiroa kontzertuaren erdian hura gogorazi zidan Korrikaren kantaren ondoko kalapitak. Abestian, La Furiak dio «arma tiro klika», eta klika horrek itxuratzen du, nolabait, kontzertuaren erdiko ezin ulertua, ikara, kaosa.

Gehiago dakitenek aztertu dute abestiaren harmonia, hor datzalakoan nahasmenaren gakoa. Hausnarketa egin dutenek ohartarazi digute bideoklipak, genero ikuspegitik, baduela zer hobetua. Horrelako kritika positiboetan geratu izan balitz kontua, ederki geundeko. Alta, erantzun katea ikusita, herri honetan aski ezaguna dugun hitz bat datorkigu burura: neurrigabetasuna.

Gatozen abestira: gustu artistikoak, gastronomikoak barne, ohitura dira hein handi batean. Deus askorik jakin ez arren, musika klasikoarekin ohiturik gaudenoi ere ezina egiten zaigu dodekafonikoak aditzea, eta horregatik ez dugu esanen putza direnik. Kritika gehienek beste hau dute atzean: hori ez da korrikarako kanta bat. Zentzu literalean ari bagara, hots, lasterka egitera bultzatzen ote duen, baliteke duda egitea. Gehienetan, baina, zentzu sinbolikoan ari gara: balio batzuckeransten dizkioguekitaldi horri; batzuk antolatzaileek eurek aldarrikatzen dituztenak dira, eta beste batzuk —eta hauek dira mindu direnak— geure uztakoak. Erantzuna hain izan da neurrigabea (sarean gertatu ohi denez, bestalde), horrek berak adierazten baitu erregistroaz haragoko elementuak ari garela epaitzen. Izan aurreiritzi, izan ezinikusi pertsonal, izan purismoa kausa («Eta umeengan ez du inork pentsatuko?», Helen Lovejoy dirudigu The Simpson-eko atal batean). Korrikaren (kantaren) irudi zurrin bat dugula dirudi, eta aurtengo abestiak irudi hori puskatu duela. Ezin ulertuaren ondorioz, beraz, errua egozten diogu kalitateari, twerking-ari edo konposizioari.

Niri gustatu zait kanta. Eta nori inporta zaio.

Zergak txandetan banatu faborez

Zergak ordaindu behar ditugu ‘zerbitzuak’ (publikoak) izan nahi baditugu. Baina Anue ibarrean, urtero, tximista bezala, zigor baten gisan, Udalaren eta kontzejuaren zergak aldi berean etortzen zaizkigu! Etxe/baserrien kontribuzioa, kotxe parearen zerga, gehi ‘IAE’ (negozioa dutenak); eta batuketa hori ez da makala!

Ibilgailuen zergak kontzejuak jasotzen dituzte, eta beste modu batean kobratu daitezke. Beste udal batzuetan zergen ordainketa urtean zehar banatzen dute (Iruñean, Zizur Nagusian...), hemen mankomunitateak ere egiten duen bezala (ura, zaborra, ur zikinak).

Anue ibarrean, oso guapo edo aberatsak garenez, “ezinezkoa, programa informatiko santuagatik”. Behin eta berriz eskatu diot Udalari aukera hori izatea.

Guztiok konforme? Beti ‘amen’?

Nahiko kateaturik gabiltza bizitzan zehar... eta udal honek ez digu laguntzarik ematen, kontrakoa, estutu egiten gaitu. Oxigeno pixka bat faborez!

Roberto Antzano,
Etsaingo Hiriarteko bizilaguna

Hasi da Euskal Herriko XI. Mus txapelketa

Abenduaren 7an aurkeztu zuten Lizarran aurtengo mus txapelketa. Izan ere, bertan izanen da aurtengo finala, herrialdez herrialde aldatzen baita urtero.

Aurten ere, gure eskualdean hainbat kanporaketa jokatu dira. Antolaketa fasean dago oraindik, baina laster emanen dizuegu informazioa. Urtero bezala, 220 herritan jokatzen dira hasierako kanporaketak, eta ondoren herrialde bakoitzeko txapelketa jokatzen da. Iruñean jokatzen den txapelketa horretan, finalera sailkatzen dira zenbait bikote, eta aipatu bezala, Lizarran izanen da aurtengo nazio mailako finala. Gorantz doan txapelketa da hau, 2009an hasi zen antolatzen, eta 1.120 bikote hartu zuten parte. Ordutik igo baino ez da egin, eta joan zen urtean 2.200 bikote izan ziren. Gure eskualdeko dozenaka bikote aritu ziren horien tartean.



▲ aurtengo mus txapelketaren aurkezpena



Lanzko ihauteria TVE-ko 'Los Lunnis' Telesailean

Ezaguna da Lanzko ihauteriak herriarena baino dimentsio handiagoa duela, eta Euskal Herri osoan ezaguna dela. Horren erakusle urtero bertan biltzen den jendetza. Baina Euskal Herriko mugak ere hautsi ditu, eta Espainiar Telebistako (TVE) 'Los Lunnis' haurrendako telesailean agertu da.

Estatuko txoko ezberdinetako kondairak eta pertsonaia mitologikoak biltzen ari dira 'Los Lunnis de leyenda' atalean, eta kondaira horiek musikaz eta bideoklip batez lagunduta kontatzen dituzte. Eta duela gutxi argitaratu dute Lanzko ihauteriaren inguruko bideklipa.

Ziripot, Mielotxin, zaldiko, txatxoak... marrazkiz egin dituzte, eta ihauteriak

oinarri duen istorioa aipatzen da abestian, gazteleraz egin.

Bideoa ikusi nahi baduzue, amezti.eus webgunean ikusgai duzue.



bideokliparen irudi bat, ziripot eta txatxoekin batera 'los lunnis' eta abeslaria ageri dira ▲



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA · PUERTA DE ULZAMA

Gulina-Aroztegi errepidea 12.8km-an

Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA




Zorionak eta urte berri on!!!!

GABON ZAHARRA 2019

23,45etatik aurrera

Kopak, musika ona eta giro aparta!!!

**Urte berri eguenan irekita bermuterako
eta ogi egin berri**



BIDAIK ZERRIK

BAZKARIAK

Zozketa berezia da gurea. Sari guzi-guziak banatzen ditugunak gara gu.

● PREZIOA DOBLEAN. ETA?

-Sari gehiago? Txartela euro batean beharrean bitan jarri dugu aurten. Batek baino gehiagok egin dituzte kontuak eta hala erran digute: Aurten prezioa doblatu duzue? Zer, doble sari jarri al dituzue?

Beste batzuk zera erran digute, prezioa doblatzearekin irabaziak ere doble.

-Hain erraza balitz!

Mikel gure adiskideak ere gauza bera erran digu eta hala erantzun diogu: hik iaz adina txartel hartu behar al dituk? Eta baietz erran digu, berak iaz adina txartel erosi behar dituela.

Aupa hi, Mikel! Hi bezalakoekin eutsiko zioagu, bai, **Pulunperi** eta **ametzta.eus** agerkari digitalari!! Eta ea **Esan erran irratia** ere martxan jartzen dugun!



AURTEN ERE SARI GEHIAGO:

● ARTISAU-LANAK

Pello Kañameres, aizkolariak bi taila eskaini dizkigu. Aizkolaria eta zizelkaria dugu Aroztegiko **Gartxito**. Bai, motozerra berezi bat du eta horrekin aritzen da zur "lantzen" edo. Honek bere lanak saridunaren nahietara moldatuko ditu, ahal badu behintzat.

● TARTAK

Tarta gehiago ere izanen ditugu aurten: Betikoari, Mentxu Pikabeari, Txani gehitu beharko diogu, Latasako okindegikoa. Berriz ere denda ireki baitu, eta imoztar honek bi tarta oparitu baitizkigu.

● BAZKARIAK

Joan den urtean baino bazkari gehiago ditugu zozkatzeko. Ostatu berri gehiago ere baitira, aurten Atetzen bi ireki dira.

● BIDAIK

Iaz bezala hiru bidaia egiteko txartelak zozkatuko ditugu. Baina aurten hobeak izanen dira. Lehenik eta behin garestiagoak izanen dira, bakoitza 180 eurokoa, eta saridunak tokiaz gain, erabakiko du zenbat egunetarako eta zein hoteletara joan eta abar eta abar.

◀ **Angel Beuntza**. Bere lana eskaini zigun lehenbizikoa dugu. Gero etorriko ziren **Pako Orbegozo**, **Ana Urteaga**, **Juan Maria Gaskue**, **Xabi Iturriotz** eta **Martzelo Beloki**.

2018

SALTZAILEEN ANEKDOTAK

Saltzaile bikainak

Burlatan badugu saltzaile bat: urtero-urtero, txintxo-txintxo, txartelak saltzen dizkigu. Aurten, txartelak saltzeaz gain, bi bazkide egin dizkigu. Eskerrik asko, Maite!

Beste saltzaile bat Azpeitira joan zen txartelak saltzera eta takoa bertan utzi. Eta Raulek topatu. Eta hor saiatu da guri telefonoz deitzen, behin, bi aldiz eta hiru aldiz.

Nor den Raul? Ez genekien, baina orain badakigu. Azpeitiko gizon zintzo bat. Horrekin franko esaten dugu. Eskerrik asko Raul!

Gure mesedetan ari dira Iparraldekoak.

Gu **Herri Urratsera** joaten gara beste aldeko ikastolak laguntzera. Hango euskaltzaleak gutxi dira eta hemengo laguntza behar dute. Eta beti harriturik utzi izan naute Iparraldeko jendeak, nola laguntzen eta babesten dituzten beren dirutxoekin ikastolak, irratia, errebistak... eskuzabaltasuna dute ezaugarrietako bat.

Ba, Dantxarinean, **Kantu egunean**, gure Pulunpe laguntzeko ere hor izaten dira lehenak txartelak erosterakoan, hala dio Itziar Mariezkurrenak saltzaileak.

Besarkada bat bestaldeko anai-arrebei, Itziarren eta Ametzaren partez.

Nola jakin saritua izan zarela?

Gasteiztar batek, Dantxarinean, txartelik erosi nahi ez. "Tori dirua euskararen alde" eta dirua eman, baina txartelik nahi ez. Ea zertarako, ea nola ikasi behar duen nori egokitu zaizkion sariak.

Bai, bai, hor izanen duzu **amezti.eus** helbidean saritu guzien zerrenda. Eta gainera, zuri egokitzen bazaizu, nahiz sari ttikiena izan, telefonoz deituko dizugu.



▲ Pello Kañamares: guregana hurbildu zaigun azken artista. Aroztegiko kirolaria eta aizkolaria. Hemen ageri zaigu gaztainondo bat ebakitzen, nahita prestatutako motozerra ezpatadun luze horrekin. Ezpatak 1,20 metro du eta gaztainondoak, berriz, 1,80 metroko diametroa.

SARI EMAILEAK

Urtero aipatzen ditugu sari emaileak. Aurten aipamen motza egingen dugu, tokirik ere ez dugu eta. Honako hauek dira:

-Esneki fabrikak: sariak ematen dizkigute alderdi honetako esneki fabrika guziet: **Bell, Goshua, Postres Tradicionales** eta **Dorrea Gaztandegia**. Eta **Lacturale**.

-Ostatuak: Aurreko Pulunpen aipatu genituen. Zerrenda hari, **Aroztegiko Izarra kanpinako ostatua** gehitu behar.

Peluleriak: Arrarasko Josune, Aizarozko Cristina, Auzako Elena, Lizasoko Rakel eta Olagueko Ana.

Landetxeak: Arrarasko **Kaaño** eta Lizasoko **Flor de Vida**.

Behorrak: Igoako **Bengoetxeko** borda.

Erosketa bonoak: Jauntsarasko **Apeztegiberria** denda eta **Auzako harategia**.

Tartak: Ilarregiko Mentxu eta Imozko Latasako Txani.

Eskulangileak: Xabi Iturriotz, Martzelo Beloki, Juan Mari Gaskue, Angel Beuntza, Pako Orbegoza, Ana Urteaga eta aurten gehitu dena: Pello Kañamares.

Eztiak: Eltsoko Isabel Telleria, Iruñeko Joxe Manuel eta Arraizko Arantxa Puignau.

Sagardoak: Berueteko **Behetxonea** (Ignacio Soraluze)

Aurum Cosmetic, Iraizokoa.

Eta sari berezia: Koke Ardaitz, Obanoskoa.



SARIAK ETA SARITUAK NON IKUSI

Sariak **amezti.eus** interneten jarriko ditugu, biharamunean, hau da ilbeltzaren 14an.

Eta gero, Pulunpen ere jarriko ditugu. Horrengatik Pulunperen argitaratzea aitzinatuko dugu ahal guziaz.

Eta sariak telefono bidez jakinaraziko dizkiegu sarituei.

SARIAK ETXEETARA

Sarituendako oharra

Sari bakar batzuk ezik, zuen etxeetara eramten dizkizue zeroien ibarreko adiskideren batek.

Eta hori bai, axuriak nork berak bildu beharko ditu. Eta zerri sariak ere bai. Horrelako sarien truke ibili liteke Ultzamaldea ikusi bidenabar, jakina.

Eta gero, dendetako bono eta abar, horiek ere nork berak bildu beharko ditu.



▲ Berueteko Garaikoan, dirudienez, hil dute txerria. Xabi, jateko moduan zaudek noski!

ETA IRRATITIK ZUZENEAN


Irratitik emanen dugu ZOZKETA zuzenean. Lokutore edo esatari lanetan Aitor Arangoa beruetarra eta Nora Ramoneda ilarregiarra arituko dira. Hori uste dugu behintzat. Ez al digute hutsik egingen! Ordua: arratsaldeko 4:30etan. Frekuentzia: 107.9





Zorionak
Iosune!

Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Argi Malutak, ongizatea

Duela urte eta erdi sortu zuten Argi Malutak mikrokooperatiba Laia Llop-ek eta Txetxu Colladok. Helburua haien askotariko jarduera, era antolatuan, saski berean sartzea izan da. Ez zuten enpresa bat sortu nahi, mikrokooperatibaren irizpideak beren bizimoduarekin eta pentsamoldearekin bat datozelako, ekonomia sozialaren barne baita. Argi Malutak hiru zutabe nagusi ditu: yoga, txinatar medikuntza, eta antzerkia.

Aizarotzen, Larraintzarren eta Etxalekun ematen dituzte yoga klaseak, eta urte hasierarekin jendea animatu nahi dute probatzera. Bestalde, herriren batean taldea sortzeko asmorik balego, beraiekin harremanetan jartzeko gonbita egiten dute. Laia Llopek, gainera, txinatar medikuntza kontsulta du Igoako Errotan. Bertan, masajeak, akupuntura eta elikadura aholkuak eskaintzen ditu. Txetxu Collado, yogan murgildu baino lehen, zirkuan eta antzerkian aritu da urte luzez, hainbat antzerki talde eta proiektutan.

● YOGA

- Txetxu, noiz ezagutu zenuen yogaren mundua?

Yoga saio batera duela 7 urte inguru joan nintzen lehendabizikoz, Iruñean, Donibanen. Zirkua eta antzerkiaren mundutik nentorren, gorputza lantzerako hituta nengoen, eta horrek erakarrita

bestelako jarduera bat probatu nahi nuen, eta gustatu egin zitzaidan. Zenbait Yoga mota probatu nituen, eta momentu batean eskaini zidaten yoga irakaslea izateko formakuntza egiteko aukera, eta Mahashakti eskolan egin nuen, Uxuen duten egoitza Nafarroan. 2 urteko prestaketa izan zen; eta egin nuen, ez konbentzitutako nengoelako irakasle izateko, baizik eta nolabait prozesu pertsonal bat bizitze aldera, yogaren munduan gehiago sakontzeko eta neure burua beste modu batean lantzeko helburuarekin. Eta formakuntza bukatu baino lehen, aukera izan nuen klaseak emateko, eta horri heldu nion. Dagoeneko 4 urte egin ditut irakasten.

- Non hasi zinen yoga irakasle lanetan?

Hemen Aizarotzen; izan ere, taldeak martxan ziren, eta formakuntza egiten ari nintzen eskolan irakasle zen bikote batek ematen zituen klase horiek. Aizarotzen bizi

ziren, eta Iruñera joateko asmoa zutenez, taldeak utzi behar zituzten, eta niri eskaini zidaten horiekin jarraitzea.

- Nola azalduko zenuke zer den yoga?

Argi dago azkeneko urteetan geroz eta arrakasta handiagoa izaten ari dela, geroz eta jende gehiago probatzen ari baita, eta agian bere alde fisikoa da gehien ezagutzen dena. Bai, ariketa fisikoa bada, eta alde horretatik sekulako onurak ditu: gorputza malgutu eta indartu egiten du, osasuntsuago sentitzen gara; baina beste eragin batzuk ere baditu: lasaiago egoten ahal gara, geure buruarekiko lotura estuagoa da; yogan zenbat eta gehiago murgildu eta geure burua hobeki ezagutzen dugun heinean, besteekin eta munduarekin harremanetan jartzeko baliabideak ematen dizkigu, eta erraztu egiten ditu eremu horietan guztietan gertatzen ahal diren egoerak kudeatzen. Aspaldiko jarduera da oso, eta pertsonak bere bilakaera prozesuan aurrerapauso sakonak emateko lan tresna edo baliabidea izaten ahal da.

- Txetxuk esan du zenbat eta gazteago hasita hobe dela, eta zu, Laia, umeei irakasten hasi zinen mundu honetan, ezta?

Nik txikitan, 4 urterekin, yoga egiten nuen. Baina geroago bizkarreko minarekin hasi nintzen, eta ezin izan nuen gehiago praktikatu. Urte batzuen ondoren, Txetxurekin itzuli nintzen mundu honetara. Bere eskolan haurrentzako yoga formakuntza ere eskaintzen zuten. Ni orduan haurdun nengoen, eta hura momentu aproposa iruditu zitzaidan horretan ikasteko, eta horrela hasi nintzen.



Aizarotzeko kultur etxean ematen dituzte yoga klaseak, honakoa 60 urte baino gehiago dituztenei zuzendutako bat da.



Laiaren medikuntza kontsulta, Igoako Errotan. ▲
Akupuntura egiten du bertan, besteak beste.
Gaurkoan Txetxu Collado bera da pazientea.

Berehala Berriozarko eskolan hasi nintzen klaseak ematen, eta nahiko azkar sortu ziren taldeak. Duela 4 urte gutxi gorabehera.

- Eta gero helduei ere irakasten hasi zinen?

Bai, eskola berean helduentzako klaseak emateko prestatu nintzen. Gero, Txetxuren ordezkapenak egiten hasi nintzen, eta aurreko dagoeneko taldeak elkarbanatzen hasigara.

● TXINATAR MEDIKUNTZA

- Laia, yogarekin hasi baino lehen, txinatar medikuntza ikasi zenuen eta kontsulta bat duzu... Nolatan sartu zinen horretan?

Naturopatia ikasi nuen, eta interesa handia sortu zitzaidan belarren inguruan, eta txinatar medikuntzari buruz zerbaite ikasten hasi nintzen, eta mundu zoragarria iruditu zitzaidan. Orduan, 4 urteko ikasketak egin nituen Bartzelonan, duela ia 20 urte. Momentu hartan, batez ere belarrak

eta filosofia izan ziren gehien erakarri nindutenak, ez nuen espero akupuntura eta orratzen arlo horretan sartzea; baina, azkenean, horretan aritzen naiz batez ere.

- Zer berezitasun du medikuntza mota horrek?

Yoga zaharra bada, txinatar medikuntza zaharragoa da oraindik, 2.000 urteko historia du. Gure organismoak dituen eremu energetikoetan oinarritzen da, gure gorputza era holistikoan ulertzen du, eta gorputzak era bateratuan funtzionatzen duen heinean, sintoma bat dugunean gorputzeko beste zati batzuekin izango du harremana horrek, baita gure egoera emozionalarekin, edo bizi garen lekuarekin eta urtaroarekin ere. Diagnostikoa, beraz, Mendebaldean ez bezala egiten da. Itxuraz elkarrekin harremanik ez duten galderak egingo ditut, eritasuna nondik datorren jakiteko, eta, adibidez, buruko min bat gibeletik edo sabeletik lantzen dut.

- Kontsulta noiz sortu zenuen?

Beti izan dut, Bartzelonan hasi nintzenetik, eta gero, duela 11 urte Basaburura etorri nintzenean, ere bai. Beste lan batzuekin uztartu dut, ostatuan lan egiten nuenean, edo mankomunitatean; baina etxean beti izan dut kontsulta. Duela 4 urte inguru, ordea, uztartzea baino gehiago, nire jarduera nagusia hori izatea erabaki nuen.

Akupuntura ezaguna egiten zaio jendeari,

baina horrez gain, masajeak ematen ditut. Txinatar medikuntzan badago masaje mota bat, Tuina deiturikoa. Naturopatia eta Ekialdeko dietetika ere ikasi dut, eta elikadura asko lantzen dut. Askotan jendea ez da etortzen medikuntza honen bila, baizik eta masaje baten bila, edo elikaduraren gaineko aholkuak jasotzera;

● ANTZERKIA

Proiektu honen hirugarren hanka antzerkia da. Esan bezala, Txetxu Collado zirkuan eta antzerkian aritu zen yogarekin hasi baino lehen. Duela lau urte, Ohianzabal eskolako gurasoek antzerki ekimen bat sortu zuten, seme-alabeei opari bat egin nahi zieten, eta, horretarako, ipuin bat antzezteko erabaki zuten. Ipuinaren moldaketa egiteko ardura hartu zuen berak, "zuzendari lanetan ibili nintzen baina antzeztu gabe, aktoreak esperientzia profesionalik inoiz izan ez duten gurasoak izan ziren, seme-alaben aurrean antzezteko, opari bat egiteko. Oso polita izan zen, azkenekoa Ohianzabalen egiteaz gain, gure lana Sortzenen egitasmo baten barnean Gaiarre antzokian taularatzeko aukera izan genuelako". Horren ondorioz, mankomunitateak eskaini zion euskarazko antzerki ikastaro bat egitea helduendako, "baina ez da atera, aski jende apuntatu ez zelako. Agian beranduegi eskaini genuen, jendeak, agian, bazuen ikasturterako plana bete eta bertan behera geratu zen. Ea hurrengo ikasturtean ateratzerik dagoen".

ULTZAMAKO UDALA + IMOTZ ETA BASABURUKO KIROL TALDEAK SUSTATUTA:

Astearte eta ostegunetan,

Larraitzarren, 10:00, jubilatutaldearekin

Asteazkenetan, Etxalekun, 10:00, 60 urtetik gorakoentzat zuzendua

Ostiralean, Aizarotzen, 10:00, 60 urtetik gorakoentzat zuzenduta

TXETXUK ETA LAIAK BERE KABUZ ESKAINTZEN DITUZTENAK, ADIN MUGARIK GABE, GUZTIAK AIZAROTZEN:

Astearte eta ostiraletan, 7:00

Astelehen eta asteazkenetan, 10:00

Ostegunetan, 18:00

HAURRENTZAKO, OHIANZABAL ESKOLAN:

Oskozko barrantx eta iruñeko

Badakizue, Justizia Señora, horrela, behean dagoena da. Bere soineko luze eder horrekin, esku batean balantza eta bestean ezpata, begiak tapaturik. Horrek zera adierazi nahi du, Justiziak, aurrean nor duen begiratu gabe jokatzeko duela, hau da, denentzat berdin jokatzeko duela. Baina nago, Señora beharrean andrea balitz askoz ere zuzenago jokatu lukeela. Gure herrietako edozein andre, gu guzian amek Señora guzien gainetik daudenak, justizia justuagoa eginen lukete. Bai, Señora horrek baino zentzudunago, errukarriago eta zuzenago.

Behin, aspaldi dela, Oskozko Barrantx, Barrenetxeko nagusia zenak, Antoniok, Donostiatik hiru karga sardina ekarri zituen bere hiru mandotan, bakoitzari karga bana gainean jarrita.

Aspaldiko kontu hori 1745ekoa da eta otsailekoa, txarretan txarrena izan ohi dena, baina txerri hiltzeko edo arraina hara-hona ibiltzeko garai hoberena.

Gertatua eta kontatuko duguna otsailaren 19an hasitzen, Antonio sardinaz zamatutako bere hiru mandoekin Barrantxean sartu zenean. Donostiatik zetorren neka-neka eginda eta etxean zuen koinatu mutil gazte eta ezkongabeari hala esan zion:

-Hi, Fermin, sardina hauek Erriberara eraman eta saldu behar dituk lehenbailehen.

Fermin Eskarai zen koinatua, etxeko semea, 28 urtekoa eta hau ere etxeko negozioan, mandazain ari zena.

Hala bada, Fermin Eskarai, goizean goiz jaiki eta hamarretarako Arrotxapeko portalean zen bere hiru mandoekin.

Portalean zain zegoen aduana-zaintzaileak galdetu zion ea zer zeramatzan bere hiru mandotan.

-Sardinak, Erriberan saltzeko.

Eta zer egin du polizia honek, beste askok bezala medailak irabazi nahian, ba atzetik segitu eta ikusi du nola gure Fermin Gaztelu Enparantzako karrerapetan sartzen den. Eta zain gelditu zen Ignazio Ekisoain, horrela baitzen bere izena, ea noiz aterako Fermin.

Hiru ordu egon zen bertan Fermin:

ibilaldiko nekea uxatu eta bazkaltzeko. Mandoak ere behar zuten bazka.

Atera eta San Nikolasko ate aldera abiatu zen, Erriberara joateko asmotan.

Eta esan bezala, Arrotxapeko ate zaintzailea begira egoki eta ikusi zuenean Fermin bazihoala, lasterka joan zen Aduana edo Tablara mandazainaz zekiena kontatzeko eta, bertakoen aginduz, berriz atzera, mandazaina har eta Tablara eramateko.

Tablan, Fermin gizajoari, ia gau guzia oinez leher ibilita, Iruñera 10etarako etorri zenari, galdeketa:

-Nora zoaz?

-Erriberara, dakarzkidan sardinak saltzera.

-Baduzu paperik? (Nafarroan sartu ahal izatekoa, aduana pagatu zuelakoa)

-Ez, nagusiak izanen ditu.

-Ba paperik ez baduzu, ez zaitzezke aurrera joan. Zatoz nirekin.

Eta Aduanan konfiskatu dizkiote hiru

mandoen kargak.

Oskotzen laster mugitu zen Antonio, otsailaren 22an bere prokuradorea hartu eta Auzitegian egin du eskaera: "beharrezkoa da sardinak lehenbailehen saltzea eta saldu prezioa Auzitegiak nahi duen tokian eta pertsonaren eskutan jarri".

Jakina, hau dena auzia bukatzen ez zen bitartean, gero gerokoak!

Zuzenbidezkoa zen eskatzen zuena, zentzuzkoa, egin beharrezkoa, oraindik sardinak jateko moduan baitzeuden.

Baina erantzuna martxoaren 9an eman zuen Juezak, bi aste berandago: ezetz, sardinaren konfiskazioa zuzena zela.

Ez garaiz, ez zuzen eta ez zentzuz. Desgaraiz, zuzenaren kontra eta zentzugabekeriak. Batez ere desgaraiz, ia egunak baitzeramatzaten sardinak galduak zeudela.

Dena dela, kontrabando auzi honek aurrera segitu du eta sardinek hedatu zuten urrinaren aferak ere bai.

Eta, jakina, uda bete-betean, arazoak. Aduanetako nagusia uztailaren 27an



Justizia Dama ▲



▲ Erdian, Barrantxe etxe ederra, erdi-erdian bere armariarekin. Etxea Antonio Etxarrik oso-osorik egina, ustez.

soluzio bila juzgadura, Aduana ingurua kirasturik baitzegoen. Hona zer dioen:

“Orain lau edo bost urtetarik hemen dago karga bat bakailao eta azken otsailetik, berriz, hiru karga eta erdi sardina” “Dauden tokira ez da inor sartzen” “Duda egiten dut ateratzera inor ausartuko denik” “esan beharrik ez dago, bi genero horiek galduak daudela” “baimena dut eskatzen kalte handiagorik gerta ez dadin, ugaldera botatzeko edo lurperatzeko, bai sardinak eta bai bakailaoa”

Eta jakina, oraingoan juezak, baietz, jakinarazteko fiskalari eta jakinarazteko auzi medikuari, beren txostenak egin ditzaten eta besterik gabe hauen iritziak jakin ondoren, desegiteko dena.

Oraindik ia hilabete bat joanen da, medikuak bere txostena abuztuaren 21ean egin baitzuen eta honek hala dio: “sardinak eta bakailaoa aztertzea zail izan da, hain da txarra hedatzen duten usaina, eta beldur naiz kaltetuak ez direla dauden tokikoak soilik, auzoko guziak baizik, batez ere jakinik gauden tenorea” “eta osasun publikoaren aldeko naizenez, pentsatzen dut lehenbailehen ugaldera bota behar direla edo Iruñetik urruti lurperatu”

Egun berean ugaldera bota zuten dena,

Arga ugaldera hain zuzen (dos fardos de abadejo y cinco fardos de sardinas, dio)

Eta sententzia ere etorri zen kontrabando kontu honengatik eta Antonio Etxarri ez zen ongi atera, nahiz berak aurkeztu nola zuen baimena, Tolosako Tablan emandakoa, 5 karga eta erdi sardina Nafarroan sartzeko. Aduana zerga ordainduazuen (Ez dakigu okerra den, baina 5 karga eta erdiko zerga ordaindu zuela dio)

Epaia ikusia zegoen. Zer eginen zuten ba? Ahulenaren kontra jo eta isil zedila. Barrantxek nozitu zuen kalte guzia. Eta iruindar askok. Iruñea guzia kirastu zuen sardina galiziana deitzen ziren sardina fresko haiek. Bai, freskoak ziren baina gure justiziak kirastu zituen, biztanleak nazkatuz eta Antonio Etxarri uxenduz.

Bai, Justizia Señorak, begiak estalirik eman zuen epaia. Oraingoan sudurra ere estalirik juzkatu zuen sardina kontrabandoa. Hobe zukeen zentzuz jokatu izan balu, denak galdutan atera ziren eta.

Hala izaten da, aberatsen diruaren urrina gozoagoa omen (nahiz dioten diruak ez duela urrinik) pobreen sardina usaina baino.



Txurdan

Zerbait gehitu behar eta

Uste duzue legez jokatu zutela hemen ageri diren funtzionarioek? Eta zentzuz?

Badakizue:

Zentzuz jokatzen duenak gehienetan legez jokatzen du, Baina, legez jokatzen duenak askotan ez du zentzuz jokatzen.

Nola daitekeen hori? Ba ene eskarmentuak hori erakutsi dit. Ez duzula konprenitzen? Zentzuz jokatu, eta ohartuko zara noizbait legea gora eta behera dabiltzanak ez direla askotan zentzuz ari.

Hiztegia

Errukarria: digno de compasión

Mandoa: garraiorako abre mota bat

Mandazaina: mandoak gidatzen dituen

Gaztelu Enparantza: Plaza del Castillo

Karrerapea: arkupea, gorapea.

Tabla: Aduanari esaten zitzaion aspaldian

Zuzenbidezkoa: de derecho.

Auzia: pleitua

Karga: sardinetan gutxienez, 150 kilo izanena da

Ugaldea: Erreka, Nafarroa guztiko hitza da, orain zoritxarrez galduxea

Auzi medikua: Auzietako mediku peritoa

Txostena: informe

Zerga: impuesto

Epaia: sentencia

Jujea (Yuyea): epailea edo jueza

11 eguneko ekimenaren amaiera, 365 eguneko lanaren hasiera

Hilabeteak eman dituzte herri bakoitzeko talde motorrek Euskaraldia prestatzen. Azkenean iritsi zen azaroaren 23a, eta baita abenduaren 3a, 11 egun iraun duen ekitaldiaren amaiera. Ekitaldia bukatu da bai, baina ez bere oihartzuna, “Orain 365 eguneko lana eta konpromisoa dator”, azpimarratzen du Ester Lakastak, Basaburuko alkate eta antolatzaileetako batek.

Ester Lakasta, Basaburuko alkate eta antolakuntzan parte hartu duena, pozik da, “nire inguru hurbilenean behintzat, bai sumatu dut aktibazioa, eta horretarako balio izan badu, positiboa da niretzat”. Lakastak bereziki belarriprest-en lana nabarmendu nahi izan du, “ahalegina ikusi dut, batez ere belarriprest batzuegan, eta horrek poztu egin nau. Guraso elkarteko ama batek esan zidan: “Egidazu euskaraz, nik ez dakit oso ongi, baina horrela badut ikasteko aukera”, eta hori asko gustatu zitzaidan”.

Ahobizi-entzat ere oso baliagarria izan dela uste du, gainera, “dugun joera hori erdarara makurtzeko, konturatzen zara zureari eusten badiozu, euskaraz hitz egiteari, besteek ere jarraitzen dutela”. Euskaraldiarekin konturatu da mila aukera daudela ohiturak aldatzeko, eta gakoa aurreiritziak baztertzean dagoela. Ohiturak aldatzeko ahaleginaz gain, hilabete hauetan prestatu den programa ere nabarmendu nahi du Ester Lakastak, “Ekintza ugari antolatzeke balio izan digu. Nire ustez luxuzko programa izan da, Erramun Martikorena eta Jon Maiarekin, besteak beste. Jende pila bat hurbildu da euskarazko ekitaldi horietara, eta, beraz, ni poz-pozik”.

Marta Gastón Valenzuela,

Aroztegi (Atetz)- **Belarriprest:**

Izarpe kanpinean aurkituko duzue Marta, tabernaren eta dendaren arduraduna gisa, gehienetan. Duela 15 urte gutxi gorabehera hasi zen euskara ikasten, baina askotan utzi behar izan du. Orain 4 urte jarraian daramatza Ultzamako AEKn. Motza egin zaio Euskaraldia, ohiturak aldatzeko gehiago iraun behar zuela uste du, eta agian horregatik ez du txapa kendu. Modu horretan bezeroek euskaraz egiten diote. Izan ere, argi dauka hizkuntza ikasteko gelditu gabe hitz egin behar duela.

Martari lanean egin zaio zailena: “Zailena lankideekin denbora guztia euskaraz egitea izan da. Hemen, kanpinean, 3 euskaldun berri gara, eta besteak euskaldun zaharrak. Eta 8 orduz jarraian zerbitzatzen zabilatzala, niretzat oso zaila da euskaraz mintzatzea, arin lan egin behar baituzu. Baina beno, gehiago egin dugu euskaraz”. Pertsona ezagunekin ere, ohiturak aldatzeak lan handia eskatu dio, baina oso pozik dago emaitzarekin: “Bezeroekin, zoragarri! Txapa ikusten didate, eta euskaraz egiten dugu.”



Virginia Iragi Ollo,

Auza (Ultzama), **Ahobizi:**

Auzan bizi da Virginia, baina Erripakoa da. Euskaraldiak zirauen bitartean aldaketak sumatu dituela aitortzen du. Umeekin eta lanekoekin hitz egiten ohi du euskaraz, baina egun hauetan gehiago mintzatu da euskaraz egiteko ohiturarik ez duen zenbaitekin:

“Okinarekin, adibidez. Normalean erdaraz egiten nuen berarekin, eta Euskaraldian euskaraz hasi nintzaion, eta orain beti euskaraz aritzen gara. Solas

gutxi da, baina...

-Egun on, bi ogi mesedez.

-Tori.

Eta kito!! (barreak)”.

Zerbaitetatik hasi behar, dena den.

Hizkuntza ohiturak aldatzearekin batera, margotzeko gaitasunak ere aktibatu omen ditu Auzan Euskaraldiak. Urriaren 31n elkartu ziren ostatuan, pankarta egiteko.





Naiara Oskoz Fernández

Zenotz(Ultzama)- **Belarriprest:**

Naiara Zenotzen bizi da orain, baina Lantzen bizi izan zen urte askoan. Euskaraldia hasi ondoren olatuak harrapatu zituen horietakoa da, ordea. Ez zuen txaparik eskuratu, baina gainontzekoek bezala hartu du parte. Antsoainen duen dendan Euskaraldia hasi zenetik bezero askok euskaraz egin diotela ohartu da, eta euskarazko mezu gehiago iritsi zaizkio.

Halaber, bera ere saiatu da Euskaraldia bere inguruan praktikan jartzen, batez

ere bere txikiekin, 8 eta 10 urteko bi seme-alaba baititu. Zenotzen, ordea, ez du horrenbesteko aldaketarik sumatu, betikoek bakarrik egin baitiote euskaraz.

Zaila egiten zaio, ez du guztia ulertzen, eta hitz egiteko asko pentsatu behar izaten du. Hala ere, onartzen du modu apal batean behintzat Euskaraldiak behartu egin duela ahalegin handiagoa egitera.



Ion Pascal Egozkue

Etulain (Anue)- **Belarriprest:**

Ion euskara ikasten ari da, eta bere taldekideekin batera eman zuen izena Euskaraldian. Anue oso txikia denez, batez ere Iruñean nabaritu du aldaketa, hirian lehen baino askoz gehiago hitz egin baitu euskaraz, "Orain, adibidez, lanean gehiago mintzatzen naiz euskaraz, batzuetan, nire lankideekin".

Euskaraldiak merezi izan duela uste du, batez ere euskaldun berrientzat, "euskadun berriei Euskaraldiak bultzada bat eman digula pentsatzen dut. Espero dut hemendik aurrera nabaritzea".



Idoia Irure Ibero,

Gelbentzuko Benta (Odieta)- **Belarriprest:**

Idoia ingurune euskaldun batean bizi nahi du, euskara hemengo kulturaren muina dela uste duelako, eta, azken finean, hemengo hizkuntza delako. "Egun hauetan egunerokoan erabili izan dut euskara, egin ahal izan dudanean euskaraz aritu naiz, nahiz eta akatsak egiten ditudan", aitortzen du.

Belarriprest izanda ere, euskaraz erantzun ditu Pulunperen galdera guztiak, eta beharrezkoa ez den arren, barkamena eskatu digu akatsengatik. Nabaritzen da bai, esaten digunez, "esperientzi ona eta atsegina" izan dela berarentzat Euskaraldia: "Nire ustez, merezi izan du, eta aukera onak ematen dituzte ekimen hauek".



Ainara Urriza Zubietta

Eraso (Imotz)- **Ahobizit:**

Erasokoa da Ainara, baina Amaiurren bizi da. Aldaketa nabaritu du egun hauetan, "nire kasuan, euskaraz dakitenekin edo ulertzen dutenekin euskaraz mintzatu naiz, eta joan naizen lekuetara lehenengo hitza euskaraz egin dut. Euskaraldia bukatu ondoren horrela jarraitu du, espero dut mantentzea". Izan ere, Amets Arzallus bertsolariak esan duen bezala, Ainararentzako ere 12. eguna da garrantzitsua, "Ongiheldu da, ekimena arras aberasgarria eta interesgarria da, baina jarraitu behar da horretan. Ez dadila geratu 11 eguneko jarduera batean".

Argi du merezi izan duela eta ohiturak aldatzeko balioko duela, baina autokritika

ere beharrezkoa dela uste du, "kritikoagoak izan behar dugu gure buruarekin. Publikora begira egin da gehien bat, eta ez gure barnera begira. Txapa janzteak zuzenean euskaldunak egingo bagintu bezala, eta ez gara euskaldun gehiago izango ahobizi txapa eramateagatik, gero zenbait ahobizi ikusi ditut erdaraz etengabe. Horren harira, Belarripresten ideia ez dakit gehiegi zehaztu den, jendeak ulertu du jende euskaldun berriarentzako zela, eta beharbada izan daiteke euskalduna denarentzat ere baina ohiturarik ez duena euskaraz mintzatzeko".



HERRIA	AHOBIZI	BELARRIPREST	GUZTIRA	%	
ULTZAMA	107	26	133	8,01	1661
ODIETA	18	8	26	7,18	362
ATETZ	17	11	28	12,33	227
ANUE	26	13	39	8,18	477
LANTZ	7	8	15	9,80	153
BASABURUA	133	60	193	22,70	850
IMOTZ	58	21	79	18,37	430
GUZTIRA	366	147	513	12,33	4160



Maite Elizondo San Martin

Jende gazte ikasi eta jantziekin egotea atsegina izaten da. Eta gehiago optimistekin. Horietakoa dugu Maite. Maite Elizondo San Martinekin, Odietako Latasako neskatxa gaztearekin egon gara bere etxeko egongelan. Zuzenbidean lizentziatua eta orain masterra egiten ari dena. Bere ikasketez, bere lanez, bere proiektuez hitz egin dugu, baina bere euskaldun izateaz eta euskararen gainean dituen esperientziez idatziko dugu. Bere gurasoak, Iñaki eta Txus ez dira euskaldunak; amatxi zenak entendatu bai, baina hitz egiteko ez zen gauza. Aitatxik bai, badaki euskaraz ederki.



Maite Elizondo ▲

Hiztegitxoa

Solastatu: solas egin=solastu

Dakusazu: ikusten duzu

Zuzenbidea: derecho (unibertsitate ikasketa)

• MAITE, NOLA DAKUSAZU EUSKARAREN ARAZOA?

Nik uste gero eta okerrago doala. Hau makurrera doa. Ni baino gazteagoak direnek ez dute ohiturarik euskaraz aritzeko.

• EGOERA OKER HAU ZUZENTZEKO EDO, EUSKARALDIA EGIN BERRI DUGU. ZER IRUDITU ZAIZU?

Bai, nik ere parte hartu dut, **belarriprest** bezala. Erran behar dizut, nire bizitza euskaraz ematen dudala gehienbat, anaiarekin, bikotearekin, lantokian... gurasoak dira ez dakitenak, baina konprenitzeko hainbat bai.

Bai, Euskaraldiak, ilusioa piztu dit. Ea gauzak hobera egiten hasten diren.

Ni ere baikor sentitzen naiz, Euskaraldia dela-eta, baina gehiago Maite bezalako gazte ekintzaile eta argiak topatzean. On eta txar ikusteko gai direnak gainera.

Maite eta bere familiari besarkada bat.

Latasako iturriko ur frexkoa edan nuen, klororik gabea eta ardo frexko xorta bat ere hartu nuen, hain beharrezkoa dugun ardo frexkoa. Topa!

• ZUK NON IKASI ZENUEN EUSKARAZ?

Eskolan, Larraintzarko eskolan, aski ongi ikasi genuen.

• ETA IRUÑEAN EDO EGIN BEHARKO ZENITUEN BATXILLER IKASKETAK. EZ ZENUEN EUSKARA GALDU?

Bai, Atarrabian ikasi nuen. Eta han galdu nuen euskara zertxobait. Guk Larraintzarren dena euskaraz egiteko ohitura genuen eta Atarrabiara joatean harritu ginen nola bertako ikasleak beren artean erdaraz solastatzen ziren.

• ETA ZUZENBIDEA DONOSTIAN.

Donostian, bai. Eta han gipuzkoarrekin, bizkaitarrekin...haien euskara ulertzen ere ahalegintzen nintzen. Azken batean, aise da.

Bai, jarrera kontua izaten da, jarrera ona bada...

• ETA ZURE AITATXIREKIN HIZKUNTZA ALDETIK ZER HARREMAN IZAN ZENUEN? MINTZATZEN ZINETEN?

Ez, batere. Erraten zuen guk ikasi genuen euskara ez zela euskara. Guri ulertzea kostatzen zitzaionez, erabaki zuen bere bilobekin ez zela euskaraz ariko. Gurekin ez zen inoiz solastatzen euskaraz.



Kaka eta pixa, ongarri

“Kaka eta pixa lurrarentzako ongarri bihurtzea betidanik egin badu gizakiak –duela oso urte gutxi arte– zerk eragozten dio soluzio erraz, merke, garbi eta jasangarriena berriro erabiltzea? Nagusiki tabu kulturalak.”

Honela hasten du artikulua Pelo Zubiria kazetariak Argia astekarian. Jakina da hainbat etxaberek sortutako ongarriak baratzean erabiltzeko onak direla, eta era oso positiboan eragiten dutela lurraren ezaugarriengan. Baina gizakiok sortutakoak zergatik ez ditugu erabiltze n? Tabu horrekin hausteko saiakera egin du Zubiriak, honen inguruko informazioa denon eskuragarri.

“Mendebalde aberatsean gero eta hedatuago daude konpost prozesuaren zati bat zirkuitu itxian

egiten duten komunak, gehienetan sistema sofistikatuagoak darabiltzate, etxebizitzetan bertan alde batetik pixa eta bestetik gorotzak bideratzen dituztenak, hauek lehertzeko biltoki berezietan, usain txarrik eta arazo berezirik gabe. Teknologia maila bateko soluzioak dira, obra eskatzen eta koste ekonomiko bat dutenak. Merkatuan asko dira eredu eta markak.

Eskura baratze edo lursail handi samar bat edukiz, benetako komun

lehor edo konpostgilea ezartzea erraz eta merkeagoa da. Horieta komunak azpian dauka ontzi bat jendeen obramenduak zerrauts, txirbil, orbel eta antzeko lehorkinez estaltzeko. Horrela eginda inolako usain txarrik eta bestelakorik ez da sortzen. Gero ontzi hori tarteka hustu ahal izango da konpost ontzi edo pila batean, sukaldeko edo baratzeiko beste edozein hondakin organikok bezala ongarri edo konpost bihurtzeko prozesua osatu dezan.

Etxeke simaur guztiak kudeatzea gehitxo iruditzen zaionarentzako, bada proposamen erreformistago bat: pixa erabili etxe barruko edo balkoiko loreak bezala baratzeiko landareak ongarritzeko. Beti uretan oso diluituta egitea gomendatzen dute, %5ean (litro bat pixa hogeituro uretan).”

Hauek dira Pello Zubiriak proposatzen dituenak, eta hainbat festa edo ospakizunetan erabili izan dira jada: Euskal Herria Zuzenean, Usurbilgo Kilometroak, Zubietako erraustegiaren aurkako kanpaldia... Baina badira halakoak kanpinetan edo nork bere etxean finko dauzkatenak.

Arazo gehiago sortzen da eta beste borroka bat izanen da, salmenta komertzialerako ari den baserritarrari ez zaiola baimentzen holakorik, edozein pestizida nazkagarri libre uzten zaion arren.



▲ Ziordiko Amarauna eremuko komun lehorra ▲



Kolpez kolpe dabil eztiaren sektorea. Askotan aipatu dugu liztor asiarrak sortu dituen kalteak. Gustura dago liztorra gure artean, eta hemengo erleari kalte izugarriak sortu dizkio. Askotan erlauntzetatik gertu kokatzen dituzte kabiak liztorrek, eta erle ugari akabatu dituzte. Erlezainek erlauntzak lekualdatu behar izan dituzte askotan.

Oraingoan beste gai batek atera ditu erlezainak kalera, eztiaren etiketari dagokiona. Azken urteotan munduko beste hainbat tokitatik (bereziki Txinatik) etorritako ezti saltzen ari da gurean, ezti eta ezti ez diren beste aldaera batzuk. Jatorria zehaztu gabe ezti bailitzan saltzen da gure artean, eta horren kezu dira erlezainak, bereziki enpresa ezti-potegileak, konpetentzia zuzena egiten baitie.

Abenduan, estatu mailan COAG sindikatuak bultzatuta, eta Nafarroan EHNEK deituta, kalera atera ziren Nafarroako hainbat ezti ekoizle. Etiketatze argi bat eskatu zuten, produktuaren izaerari eta eztiaren jatorriari dagokiona.

Guk, gure ezti ekoizleengana jo dugu. 20 urte dira Isabeleta Karla ezti eta bestelako produktuak (argizaria, propoleoa, ezti

krema...) Eltson egiten dituztela. Nafarroako hainbat lekutan d i t u z t e erlauntzak, Nafarroa erdi-hegoaldean bereziki, baina baita Eltson bertan ere. Eta eztiaren ezaugarriak al d a t u g a b e k o kalitate handiko e z t i a


egiten dute. Hau da, prozesua tenperatura moldatu gabe, hotzean egiten dute, eta inolako produktu gehigarriak ez diote botatzen. Zonalde ezberdinetako eta lore ezberdinetako eztiak lortzen dituzte, eta ezti bakoitza zein loreri dagokion ere ikertzen dute etxean duten laborategian.

Etxebizitza, ezti ekoizpenerako espazioa, laborategia, museoa eta denda, dena dute etxe berean, eta bisita ugari izaten dituzte museoan, Nafarroako hainbat ikastetxetik etorritakoak gehienak, baina baita familiak eta erlearen munduan interesa dutenak ere.

Guri ere ederki azaldu dizkigu Karlak

erlearen eta eztiaren inguruko xehetasun guztiak. Historian izan duen garrantzia, ezti-ehiztariak, munduko txoko ezberdinetako ohiturak, Ultzama aldeko eta Nafarroako ezti ekoizpena, erlauntzen aldaketak, eztiaren prozesua, argizariaren ekoizpena, baserrietako argizaiolak eta abar luze bat.

Hori guztiori azaldu ostean, gaur egun erleak bizi duen egoeraz mintzatu gara, eta aurten bereziki urte zaila izan dela aipatu digu. Orain arte liztor kabiak ikusi izan dira, baina aurten kopuruan asko hazi dira, eta Eltson bertan bi kabi agertu dira erlauntzen ondoan. Bota egin zituzten, eta



◀ Ultzama aldeko erlauntza tradizionala

argizaria eta ezti bereizteko prozesua ▶



▲ Urritzolan, erlauntzak egiten



▲ Eltson eginiko ezti krema

azkenekoan, ez zen liztorrik ageri. Baina Karlak azaldu digunez, negua igarotzeko atera egiten dira, eta erreginak lur azpian hibernatu egiten du. Beraz, negua pasa ostean berriz ere aterako dira eta kabi berri bat egiten hasi.

Bestetik, erleen sektorean eragin negatiboa duten beste faktore batzuk azaldu dizkigu. Klima aldaketa da horietako bat, erleen jarrera aldatu duelako. Intsektizidak eta pestizidak ere negatiboki eragin dute erleengan, eta baita gaur egungo nekazaritza ereduak ere. Esaterako, azken urteetan Koltza ugari ereiten ari dira, eta horrek erleak erakartzen ditu, eta lore espontaneoak, orain arte polinizatzen zituztenak utzi dituzte erleek, eta koltza zelaietara jotzen dute. Horrek erlearen jarrera aldatu egin du, eta eztian ere eragina izaten du. Bestetik, uhin elektromagnetikoek erleen nerbio sisteman eragina izan dute eta orientazioa galtzen omen dute.

Honek guztiak erleen hilkortasun handia sortu du, eta hori erakutsi nahi izan zuten Iruñean egindako kontzentrazioan, hildako erleen multzo handi bat jarri lurrean. Administrazioaren neurri faltaren aurrean kexu dira erlezainak. Mendi publikoetan

erlauntzak jartzea errazteko eskatzen dute, erlearen osasuna bermatzeko erregulazioa egitea, liztorrari aurre egiteko neurria hartzea.

Hauxe da, beraz, erlearen eta eztiaren egoera. Ekoizle txiki guztien artean Karla eta Isabel ditugu gurean, Ezkurdi ezti egiten dutenak. Baina afizionatuak ugari dira, etxerako eta inguruko jendearentzat ezti ekoizten dutenak, eta haien artean ere arriskuan dago erlearen egoera.

▼ EHNEren agerraldia Iruñean eztiaren etiketatze argiaren alde





Hiru apalategi

1-ANARKISTA BATEN BIZITZA

Pixa egiten zuen praketan. Lucio Urtubia, City Bank, munduko banketxerik boteret-suenetako bat hondoratzeko zorian egon zen faltutzailea; Che Guevarari dolar falt-suez kapitalismoari gerra egitea proposatu zion gizona; Espainiako armadatik ihes egin zuena; Lucio Urtubiak, nafar anarkista famatuak, pixa egiten zuen praketan banke-txei “desjabetzeak” —horrela esaten zuen Luciok lapurretaren ordezkari egiten zien bakoitzean. Tentsioagatik. Inori mina ez egi-teagatik. Inor hiltzeko beldurragatik.

Mikel Santos “Belatz”ek, Iruñeko komiki-gileak Gerezi garaia komikiko lehenengo orrialdeetan kontatzen digu pasadizo hau; edo marrazten digu, hobe esanda. Gerezi garaia liburuak, Txalapartak argitaratua, Cascanteko borrokariaren bizitza azaltzen digu. Ez da lehengo aldia: Lucioen bizitzari buruzko hainbat liburu eta film egin dira, adibidez, Lucio Urtubia, el anarquista irreductible, Bernad Thomasek idatzitako liburua edota Lucio, Aitor Arregiren eta Jose María Goenagaren dokumentala, liburutegian dauzkagun bi aipatzeagatik. Baina, komiki diziplinak egileari detalle hauek eskatzen zizkion, egunerokoagoak, Lucioen kondaira gaindituz. Komiki honetan daude, beraz,aldi berean igeltseroa eta lapurra, anarkista menderaezina eta praketan pixa egiten zuen gizona. Eta batez ere Lucioen altxorra (izan ere, horrela izan da gaztelaniazko liburuaren izenburua, El tesoro de Lucio), hau da, Cascanteko anarkistaren mezua: “Ezer ez da ezinezkoa. Dena lortzekoa da. Paperak egin ditzakezue paperik ez dutenei emateko, bizi eta lan egin ahal dezaten. Dirua ere egin dezakezue, guk egiten genuen bezala. Haiek dirua egiten badute, guk zergatik ez? Hori ez da krimena, hori da plazera...”, idazten du Luciok komikian.


Mikel Santos “Belatz”, Gerezi garaia egi-lea eta Durangoko azokako garailetako bat, gurekin egon zen pasa den urtean, komiki tailer bat emanez (izan ere, liburutegiko horma bat oraindik daukagu bere marrazkiekin apainduta) eta espero dugu hemendik gutxira Larraintzarko bentara etortzea berriro komiki arrakastatsu hau aurkeztera.

2- ALZHEIMER GAZTEENTZAT

Alzheimer, gure garaiko gaixotasunik kezka-garrienetako bat, literaturaren puntutik aztertua izan da hainbatetan. Esate baterako —komikiekin jarraitzeko—, Paco Rocaren albuma Arrugas (liburutegian ere badago, eta komiki honetaz hain zuzen ere egin genuen duela gutxi irakurle taldearensaio bat), edo nobelei dagokienez, besteak beste, El hijo de la curandera (Amy Tay), Ahora tocad música de baile (Andrés Barba), Mi madre (Tahar Ben Jello), edo Siempre Alice (Lisa Genova). Euskal literaturan eleberririk ezagunena Unai Elorriagaren SPEKO tranbia da, dudarik gabe, baina orain Alberdaniak argitaratu du gazteei zuzendutako liburu bat: Sinbad deitzen zidan, Francisco Castro idazle galiziarrena eta euskaraz Jorge Gimenenez Bech-ek itzultita).

Hau da kontrazalak esaten duena:

“Aitonak gauza arraroak egiten ditu. Dena ahazten du. Mundu guztiari aldatzen dio izena, baita 10 urteko bere biloba Paulori ere, Sinbad deitzen baitio, ipuin zaharreko marinel haren izenaz. Paulok borroka egingo du aitonaren gaixotasunaren aurka, jarrera ulerkorraz, konplizitatez eta, batez ere, maitasun handiz. Gauzak itsusi jartzen direnean, Paulo izango da nola jokatu asmatuko duen bakarra, bere haur begiradaz helduek baino harago ikusten baitu... Paulo —edo Sinbad Marinela— da aitona ulertzen duen bakarra, eta aitonaren gaixotasunaren aurka borrokatuko da, baina baita helduen aurka ere, eta batez ere berekoikeriaren aurka”.





3-BERTAKO BILDUMA

Liburutegian saiatzen ari gara bertako bilduma indartzen, bailarako idazleek merezi duten lekua izateko gure apalategietan, eta horrexegatik aipatuko ditugu azken hilabeteotan gehitu ditugun hemengo idazleen liburuak: Aulkipeko sekretuak (Iñigo Ibarra), Xomorropoemak, Gerrak ez du izenik, Kixotenean eta Lohia (Maite Mutuberria), Baita hondakinak ere, Ez duzu abusatuko eta Kixotenean (Iñigo Astiz), Ultzamako etxeak (Lourdes Iraizoz), Cosimoren katiuskak (Ana Ibañez eta Dani Martirena) eta En un segundo... tu vida cambia (Sandra Iraizoz).

Liburu hauek eta beste asko gehiago zuen zain daude liburutegian!

Patxi Irurzun
Ultzamako liburuzaina



2018ko urrian

Jaiotzak:

ANUE Olague


Marcos Juvera Marin, Carlos eta Elisaren semea, urriaren 14an jaioa.



▲ Sofia eta Marcos Juvera Marin

LANTZ

Haizeder Mariezkurrena Mariezkurrena, Mikel eta Birjiniaren alaba, urriaren 22an jaioa, **Apezenean**.



▲ Mikel eta Birjina, beren bi alabekin, Izargi eta Haizederrekin.

ULTZAMA Iraizotz

Jon Arraztoa Ezkurra, Iker eta Maiteren semea, urriaren 13an jaioa.



▲ Jon ttikia. Ongi kontent dago familia!

ULTZAMA Eltzaburu

Mikel Herranz Oitz, Eltzaburukoa, eta Julie Marie Lecourtois, Harfleur-koa, Normandia, urriaren 13an ezkondu ziren. Uhartera joanen dira bizitzera.



▲ Mikel eta Julie

ATETZ Eritze

Dionisio Bergera Azkarate, **Antsoneko** nagusia, urriaren 26an hil zen.



▲ Dionisio

BASABURUA Ihaben

Jose Mari Munarritz Larrion, **Miltxoneko** nagusi gaztea, urriaren 12an hil zen.



▲ Joxe Mari

“Mila zorion ezkonberriei”

“Gure oroimenean izanen zarete”

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**


678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



Zozketa Mundiala

2018



BIDAIK BAZKARIAK
ZERRIAK

10 Zerri gizen

18 Bazkari (bi lagunendakoak) **10** Axuri eder

24 Gazta **30** Saskitto (8-10 produkturekin)

2 Landa etxeetarako bonoak (asteburuatarako) **8** Esneki sorta

4 Tarta **2** Sarrera: "Ezagutu gure behorrak"

2 Elgorriagako bainuetxea
Sari (asteburuatarako)

6 Erosketa bono bertako
denda eta harategietakoak


3 Bidaietarako bonoak
(asteburuatarako)

2 Kosmetika sorta

5 Ile apaindegiko bonoak

6 Esku-lan

Eta sari berezia!



www.amezti.eus